

# txi kitto!



‘Itsaspeko bihotzak’

# Istorioen bidez ikasten



### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri, Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta Eibarko ikastetxeetako  
ordezkariak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maidar Aranberri eta Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Ekhi Belar.

### Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Txikis beak



✓ Jaimito eta bere ama hileta  
batean daude eta amak esaten  
dio:

- Xanpua erosi behar dut, baina  
orain ezin dut gogoratu zein  
markakoa den.

Jaimitok pentsatu ostean  
esaten dio amari:

- Elvive.

Eta amak erantzuten dio:

- Ez Jaimito, hilda dago.



✓ Andereño berri bat gelan sartzen  
da eta esaten du:

- Tentela sentitzen dena jarri zutik.

Peru bere aulkitik jaikitzen da, eta  
andereñoak galdetzen dio:

- Tentela sentitzen zara?

- Ez, andereño, pena ematen dit zu  
bakarrik zutik egotea.

✓ Anek amari esaten dio:

- Ama, ama, zer daukazu tripa  
barruan?

- Umetxo bat daukat.

- Eta umetxo oso bat jan duzu?





- ✓ Bi hondar-ale basamortutik doaz eta esaten dio batak besteari:  
- Jope, a zelako manifestazio jendetsua!



- ✓ Mutiko bat hain baxua hain baxua zen, kanika baten gainean jarri eta “mundua nirea da!!!” ohikatu zuela.



- Eta neska bat hain altua hain altua zen jogurta jan eta sabelera iritsi orduko kadutatu egin zitzaiola.



- ✓ Andre bat harategira sartu eta esaten dio harakinari:  
- Emaidazu txerri-buru hori.  
Eta harakinak erantzuten dio:  
- Barkatu, andrea, baina ispilu bati begira ari zara.

- ✓ Patxi baratzean marrubiak simaurrarekin ongarritzen ari da eta



- galdetzen dio lagun batek:  
- Zer ari zara egiten?  
- Hemen! Marrubiei kaka botatzen!  
- Aiba! Eta natarekin ez duzu probatu?

# Denborapasak

## 7 desberdintasunak



June


## Hizki-zopa

X	C	D	E	A	H	F	Q	W	Z
J	U	V	O	D	O	Y	T	K	A
K	R	S	T	Y	Q	W	S	Ñ	I
S	E	A	U	K	S	E	A	M	R
B	P	I	T	D	B	G	B	S	R
Q	V	N	S	A	U	R	X	B	A
D	I	X	D	O	Ñ	R	E	N	L
O	M	K	H	H	J	G	R	G	E
L	R	C	N	A	I	Y	J	A	B
D	Y	T	X	A	U	R	U	B	H

- Eskua
- Oina
- Burua
- Besoa
- Belarria
- Begi
- Ahoa
- Sudurra

*Danel e*

## Labirintoa



Lotu zapatak kaltzetiñekin

Enaut



## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Itsaso Eraso** izan da. Ipuina eta ...eta kitto!ko sudadera eraman ditu etxera Itsasok. Zorionak!!!



## 7 desberdintasunak



BIDALI ERANTZUNAK APIRILAK 20 BAINO LEHEN  
**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena .....

Adina ..... Tel.....

# Denborapasak

## Lotu puntuak

Lotu puntuak 

Zer  
mounstru  
da?




Nora Espirua

LOTU ZENBAKIAK 1etik 63ra.



**ZER OTE DA ?**

Gera margotu.



Martina Garate



**AMAÑA** ikastetxean ere bat egin dugu Martxoaren 8arekin. Hainbat ekintza egin genituen egunean zehar; arratsaldean emakume desberdinen biografiak landu genituen eta bukatzeko 8 bat osatu genuen ikasle, irakasle eta gurasoen artean.

Kaixo danori **LA SALLE ISASITIK!!!**

Aste Santuko oporrak gainean ditugu eta martxoa ekintzaz beteta datorkigu. 6. mailakoak hilaren 5 eta 6an Sastarrainen egon ziren Ekaineko kobazuloak ezagutzen. 12tik 16ra PROEGA

astea ospatu genuen urtero bezala eta Pintxo Solidarioan lortutako diru guztia Argentinara joango da DBHko eskola bat egiteko. 19tik 23ra berriz EUSKAL KULTUR ASTEA ospatzen ari gara eta Mattin Kukuaren bisita izango dugu pertsonaia ospetsuez aparte!!! Ondo pasa oporrak denok!!!



## ALDATZEKO

6. mailako ikasleek, Natur Zientzia ikasgaiko energia berriztagarri eta berriztaezinak lantzen ari ginela, izugarrizko zortea izan genuen. Gure ikasle baten ama, gai honetan aditua dena, ikastetxera etorri zen eta bideoak eta hainbat tresnaz baliatuz, bere azalpenekin gaia biribiltzeko aukera bikaina izan genuen.



Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko eguna gogoratu genuen **ITURBURUN**. Aurrez geletan eta liburutegian gaia landu dugu: horma-irudiak, hausnarketak, euskal emakume desberdinen lanak eta lorpenen biografiak egin ditugu. Emakumeen argitasuna eta emakumeei argitasuna irudikatzen saiatu gara, eskubide berdintasuna lortzeko bidean.

**GU ERE HEZKIDETZA ETA BERDINTASUNAREN ALDE!**



## Kaixo **ARRATEKO ANDRA MARI**

Ikastetxetik! Beno, badoa ikasturtea aurrera eta laster Aste Santuko oporrak izango ditugu, baina hori baino lehen hainbat ekintza eta irteera egin ditugu, besteak beste, martxoaren 7an, 4. mailako ikasleak Portaleara joan ziren "Itsaspeko bihotzak" izeneko areto literarioan parte hartzera eta ondoren, armagintza museoa ikustera. Horretaz gain, eta urtero bezala, otsailaren 16an, irrati-saioekin hasi ginen. Hor ari dira HH eta LH-ko ikasle eta irakasle guztiak lan eta lan, saio ezin politagoak prestatzen! Irteera pedagogikoak ere bertan ditugu, apirilaren 3an, LHko 3. eta 4. mailakoak Deba Goienera txangoa egingo dute. Gatzagako inguruetan ibilbide bat egin eta "Gatz museoa" bisitatuko dute. Ea eguraldi ona egiten duen!



**URKIZU** ikastetxeko 3. mailakoek, Eroskik antolatutako ekimen bat aprobetxatuz, txangoa egin zuten Arabako patata ekoizte-lantegi batera. Asko ikasteaz gain, ederki pasa zuten. Bestalde, Martxoak 8ko Emakumearen Egunari begira egindako ekintzen artean: emakumearekin lotura duten ipuin eta liburuen irakurketa-txokoa eduki dugu eskolako sarreran, haur, irakasle eta gurasoek begiratu eta irakurri ahal izateko. Gai honi lotuta, martxoaren 8an Urkizuko parkean Flash Mob-a egin genuen 6. mailakoek lagunduta.



# Urperaldi baliotsua Portalean

Badoa negua eta eguzkia gehiago ikusten hasi gara, baina itsasoan bainua hartzeko goiz da oraindik. Ez horrela Portalean. Galtzagorri Elkarteak eta Juan San Martin Liburutegiak 'Itsaspeko bihotzak' izeneko aretoa prestatu zuten bertan, urpean murgildu eta hainbat gauza ikasteko aukera paregabea.




Herriko ikastetxeetako umeek mundu magiko batean ibiltzeko aukera izan dute egun hauetan. Itsasargitik urpekarien arropak ikustera, lanbideen txokotik urpekarien sukaldera, urpeko ontzitik zinemara eta azkenik irlara; aretora hurbildu direnek istorio eta kontakizun aberasgarri eta argigarriak jaso dituzte ipuinen eta gidariaren eskutik. Noski, urpean ezin zara gidari gabe ibili!

**Amaña ikastetxeetako** goiz ederra pasa zuten txoko batetik bestera, eta horren lekuko izan ginen. Gogotsu entzun zituzten gidariaren azalpenak, eta euren galderen erantzunei galdera gehiago gehitu zizkieten.

Lanbideen txokoan etorkizunean zertan aritu nahiko luketen azaldu zuten umeek. *“Ba, asko ikasten baduzue, lortu ahal izango duzue”*, esan zien gidariak. Sukaldera iristean, etxeko lanak etxeko kide guztien artean egin behar direla ikusi zuten. Amañakoek azaldu zuten ohea egiten dute, mahaia jaso, garbitu... eta bazkaria ere prestatzen dakite! Urpekotik norberaren barruko korapiloak askatzen ikasi zuten umeek, eta itsaspeko zineman maitatzeko modu asko daudela ikusi zuten. Eta, azkenean, irlara iritsi ziren, guztiona den irlara. Politia izan zen helmuga, baina are politagoa liburu eta istorioen bitartez urperaldian zehar ikasitakoa.





**IZENAK**

Mikel

**ABIZENA**

Oyarzabal

**JAIOTERRIA**

Eibar

**JAIOTZE-DATA**

1997/04/21

**- Zer sentitu zenuen Realarekin debutatzerakoan?**

Txikitako amets bat egi bihurtu zela. Urte askotan egindako lan eta sakrifizioaren saria.

**- Futboleant bizitako zein momentu da zure gustukoena?**

Asko: debut eguna, Barçari sartutako gola, Espainiako selekzioarekin debuta... baina batekin geratzekotan, Celtaren aurkako aurreko denboraldiko partida.

**- Miresten duzun futbolari bat?**

Messi.

**- Zer sentitzen duzu Ipuruan jokatzen duzunean?**

Berezia da niretzat nire herriko taldearen aurka jokatzea, lagun ugari ikusten ditut harmailetan.

**- Futbola ez den beste kirol bat?**

Tenisa.

**- Itsasoa ala mendia?**

Itsasoa.

**- Gazia ala gozoa?**

Gozoa.

**- Uda ala negua?**

Uda.

**- Kolore bat?**

Urdina.

**- Animalia bat?**

Txakurra.

**- Zer 3 gauza eramango zenituzke irla desertu batera?**

Familia, lagunak eta janaria.

**- Sekula jantziko ez zenukeen arropa bat?**

Tiranteak.

**- Eta zure armairuan falta ez dena?**

Kirol arropa.

**- Birziklatzen duzu?**

Bai.

**- Euskara osasuntsu dago?**

Geroz eta gehiago.

**- Aldagelan euskaraz egiten duzue?**

Bai.

**- Zein da aldagelako bihurriena?**

Joan arte, Iñigo Martínez.

**- Zerk pozten zaitu?**

Garaipenak.

**- Zerk haserretu?**

Porrotak.

**- Abesti bat?**

Gatibu – Euritan dantzan.

**- Gehien gustatzen zaizun jatekoa?**

Pizza.

**- Eta gutxien?**

Espinaka.

**- Nolakoa da zure egun perfektua?**

Garaipena lortzen dugun edozein partida egun.

**- Ametsetako oporrak non?**


Ozeaniako irla batean.

**- Futboleant lortzeko amets bat?**

Realarekin titulu bat lortzea.

**MIKEL  
OYARZABAL**

20 urte ditu oraindik eta dagoeneko 100 partidu jokatu ditu Errealarekin Lehen Mailan. Munduko jokalaririk onenen artean bere tokia aurkitu du Oyarzabalek eta bide luzea dauka oraindik egiteko. Idoloa Anoetan, Ipuruan jokatzea berezia izaten da eibartarrantzat.



## INIZIAL PERTSONALIZATUA

Zure logelako atea apaintzeko eskulana proposatzen dizugu oraingoan. Eskura eduki ditzakegun materialekin egin dezakegun eskulana da eta denbora gutxi beharko dugu egiteko. Eman zure ukitu berezia logelari!



### PAUSOAK

#### MATERIALA

- ✓ Txantiloia
- ✓ Guraizeak
- ✓ Kartoia
- ✓ Oparientzako papera
- ✓ Kola zuria
- ✓ Pintzela
- ✓ Apaingarriak


- 1.- Ordenagailuan hainbat letra-mota aztertu eta gustokoen duzuna aukeratu. Gehien gustatzen zaizuna aukeratzekoan, inprimatu ezazu.
- 2.- Inizialaren txantiloia egin eta, horren laguntzarekin, kartoi zati batean letra marraztuko dugu. Zereal- edo esne-kaxak badituzu, erabili itzazu.
- 3.- Marraztu eta gero, kartoiaren marraztutako inisiala moztu.
- 4.- Pintzelarekin kola zuria jarri kartoiaren azalean. Gustoko duzun papera aukeratu eta kartoi zatiaren gainean itsatsi. Eta burbuilarik sortzen ez dela zaindu! Horretarako, kartoi zati bat edo trapu bat pasatu itsatsitako paperetik.
- 5.- Inizialaren paperaren soberakinak moztu. Bestela, atzeraka tolestu.
- 6.- Gustoko dituzun apaingarriak itsatsi kolarekin.
- 7.- Iniziala logelako atean itsatsi alde bietako itsasgarria duen zintarekin.

**Ti-ta!**

## ARBEL PERTSONALIZATUAK

Gauzak apuntatzeko, marrazteko, jolasteko eta beste hainbat gauzatarako balio duen eskulana da hau. Gainera, zure gustura apainduko duzu arbela! Hasteko, garbiak izan behar garenez, kartoi edo egunkari bat jarri mahai gainean, ez zikintzeko. Gero, egur-xafla margotu, margoa ondo sakabanatuz modu uniformearen. Margoa lehortzen utzi eta gomazko figuratxoak itsatsi kolarekin, gure gustoko koloreekin markoa egin edo gure gustokoen pertsonaien marrazkiak egin. Irudimena da muga bakarra! Arbela ondo apaindu ostean, nahi duzun tokian eskegi.





# OILASKO IZTERRAK SALTSAN

Oilasko izter goxo eta urtsuak prestatuko ditugu oraingoan. Gainera, oso errezeta elikagarria eta orekatua da, eta entsalada batekin lagundu ahal dugu.

## OSAGIAK (4 LAGUNENTZAT)

- ✓ 500gr patata
- ✓ 2 tipuleta fresko
- ✓ 2 baratxuri-atal
- ✓ 2 oliba-olio koilarakada
- ✓ 6 oilasko izter (azal gabe)
- ✓ 5 tomate
- ✓ 200gr oilasko-salda
- ✓ Ezkaia edo oreganoa (aukeran)
- ✓ Gazta



## PAUSOAK

- 1.- Labea 200°-tan berotu goitik eta behetik. Patatak tamaina erdiko zatietan, tipuletak tirtetan eta baratxuriak zati txikietan moztu. Gazta eta piperbeltza gehitu, eta labean sartu 15 minutuz.
- 2.- Labea martxan dagoen bitartean, zartaginean oilasko izterrak doratu olio koilarakada batekin. Kolore pixka bat hartu behar dute, baina gordinik, labean egingo direlako.
- 3.- Denbora pasatzen denean, labean dagoena atera eta oilasko izterrak, tomate zatiak, oilasko-salda, gatz eta piperbeltz pixka bat, eta olio koilarakada bat gehiago gehitu. Berriz ere labean sartu oilaskoa ondo doratu eta tomateak erre arte, gutxi gora behera 40 minutuz 180°-tan, beroa goitik eta behetik jarritz.
- 4.- Denbora pasatzen denean, ontzia labetik atera eta berehala zerbitzatu.

# JOGURT BIZKOTXOA



Jogurt edalontziaren neurriekin egindako errezeta hau da bizkotxoak egiteko modurik errazena eta ezagunena. Kasu honetan, limoizko jogurta erabiliko dugu, ukitu gozoa ematen diolako eta, nahi izanez gero, limoi-birindura jarri diezaiokegu zaporea gehiago nabarmentzeko. Lehenengo, labea 180°-tan berotu. Jogurta ontzi batean bota eta bere edalontzia erabiliko dugu neurri moduan. Arraultzak azukrearekin irabiatu eta, gero, legamia, irin bahetua eta olio gehitu. Dena ondo nahastu irabiagailu elektrikoarekin. Masa homogeen eta fina daukagunean molde desmuntagarrian bota. Aurretik, gurina eta irin pixka bat botako dugu moldean, gero bizkotxo desmuntatzea erraza izateko. 30-35 minutuz labean sartu 180°-tan, bizkotxoaren erdian labana sartu bere punta garbi irten arte. Desmuntatu eta hozten utzi.

'Libutxu' irratsaioa egin eta entzuteko aukera daukate Arrateko Andra Mari ikastetxeko ikasleek. Astean behin, 10:45ean hasita, 15 minutuko saioak egoten dira entzungai eskolako pasilloan. Txistek, berriak, bitxikeriak... kazetari lanetan dabiltza Urki aldean.



## Nolako esperientzia da irratsaio batean parte-hartzea? Zer egin duzu bertan?



**Amine  
Sarrakh**  
9 urte

Irratsaioak aurretik presatzen ditugu, baina irrastian zuzenean berbetan hasten naizenean urduri jartzen naiz. Lehenengo, andereñoak gaiak banatzen ditu eta guk zer egin nahi dugun aukeratzeko. Laburpena, eguraldia, ordua, eguneko menua, berriak, txistek, bitxikeriak... gauza asko lantzen ditugu. Nik txistek kontatu nituen lagun batekin.



**Eider  
Madrigal**  
11 urte

Ni ere urduri jartzen naiz, baina barre asko egiten dut irratsaioan! Bi egunetan prestatu genuen gure saioa, baina ondo irten zen. Musika ere jartzen dugu irrastian, telefono mugikorretik zuzenean. Irratsaioak entzuteko pasillora irteten gara eta saioak Ibon atezainaren 'txiringitoaren' ondoan egiten dira.



**Melanie  
Correa**  
11 urte

Gure gelan zerrendaren arabera banatu ditugu irrastiko lanak, eta niri ikasleen urtebetetzeak esatea tokatu zait. Aste bakoitzean noren urtebetetzeak diren esaten dugu. Aurten, zerbait berria egiteko, ikasle batzuk Titanic pelikularen abestia txirularekin jo zuten. Gainera, asmakizunak ere botatzen dira eta asmatzaileen artean saria zozketatzen da.



**Jon  
Telleria**  
11 urte

Nik txiste bat kontatu nuen irratsaioan. Guzti guztia bere tokian joateko eta ondo irteteko, irakasleak prestatzen dugun guztia gidoi batean sartzen du. Polita da, ikastetxe osoak hartzen duelako parte proiektu honetan. Lehenengo 6. mailakoak hasten dira, besteei eredu emateko, eta gero 5. mailakoek, 4. mailakoek... egiten dute. Ni nahiko urduri jartzen naiz.




**Ane  
Luque**  
9 urte

Nik elikadura-piramidea azaldu nuen irratsaioan beste lagun batzuekin. Karbohidrato, proteina, bitamina eta gatz mineralen berri eman genuen. Niri azken atal hau tokatu zitzaidan. Ondo prestatu genuen eta andereñoak lagundu zigun. Ez zen nire lehen aldia, baina urduri jarri nintzen. Mikrofono aurrean zaudenean ikastetxe guztia zuri entzuten dagoela pentsatzeak, urduri jartzen nau.




**Diyae  
Ahdadou**  
11 urte

Nik txistek kontatu nituen. Ondo geneukan prestatuta, baina hasieran kostatu egin zitzaigun, barrezka hasten ginelako txistea kontatu baino lehenago. 4 edo 5 txiste kontatu genituen. Gehien gustatzen zaidan atala bitxikeriena da. Batzuetan Txikitton bilatzen ditugu bitxikeriak. Gainera, ikastetxeko eta herriko berriak kontatzen ditugu irrastian eta ondo dago.




**HARIAREN GAINEAN (6 URTEK AURRERA)**

“Amaren etxearen eta aitaren etxearen artean mundu oso bat dago. Astebete irauten duen mundu bat. Denbora azkarrago igaro dadin, hari bat luzatu dut nire bi bizitzaren artean”. Zaintza partekatua bere erara ulertzen duen funanbulista maitekor baten istorioa.



**KEMENA (8 URTEK AURRERA)**

Amanek bost urte ditu, eta azken boladan ez dirudi oso fin dabilenik. Gainera, Kattalin beti zirikatzen izaten du! Izan ere, Kattalinek nahiago du eskolarako bidea bere lagun Olaiarekin bakarrik egitea. A ze buruhausteak ematen dituen Amanek! Normalean, Mari ere bidean gurutzatzen da Amanerekin, baina berea nahiko ezberdina da, munstroz eta izaki magikoz beteriko bidea baita. Hiru istorio ezberdin kontatzen ditu komikiak; ezberdinak, bai, baina hirurak indar berberaz blaituak, edozein egoerari aurre egiteko beharrezkoa den indar bortitz zein maitakor horretaz: KEMENA!



**ERRESKATERA! (10 URTEK AURRERA)**

Samek azken misioa egin behar du! Hori gaintzeko, Prune lehengusina beharko du eta zaldunen trebetasuna; batez ere Baso Ikaragarrian sartu behar badu. Txarrena ez da ba-soan otsoak bizi direla, baizik eta zuhaitzetan zelatan dauden izaki beldurgarriak.

**“Ni ez naiz xomorroa”  
(LA SALLE ISASI)**

La Salle Isasiko ikasleek ‘Ni ez naiz xomorroa’ abestia hartu eta jolas polita aurkeztu digute. Itxi begiak eta ondo pasa!

**Nola jolasten da?**

- Lagun bati begiak itxi zapi batekin.
- Beste guztiak lagun horren inguruan jartzen dira eta ‘Ni ez naiz xomorroa’ kantua abesten dute.
- Kantua amaitzean begiak itxita dituen toki berean geratuko da eta beste guztiak jolasgunean sakabanatuko dira.
- Bakoitzak bere tokia hartu eta gero, begiak itxita dituen lagun bila irtengo da, ezer ikusi gabe, eta lagun batekin topo egiten duenean, nor den asmatu beharko du.
- Asmatzen badu, lagun horri pasako dio zapia eta lagun horrek itxi beharko ditu begiak berriz jolasteko. Eta asmatzen ez badu, beste lagun baten bila joan beharko da, nor den asmatu arte.

**BIDEOA:**

<http://etakitto.eus/txikitto/la-salle-isasi.html>

**Jolastokixan jolasian**



**NI EZ NAIZ XOMORROA**

Ni ez naiz xomorroa  
Izanagatik lau begi.  
Zatoz, zatoz nirekin  
Ez zoazela ihesi.  
Tran la rai lai lai...  
Bat, bi, hiru... kuku!



### Martxoak 23, barixakua

- ✓ **Plazara Dantzara** dantza-saio ireki eta parte-hartzailea. 20:00-21:30, Toribio Etxebarrian. Kezka Dantza Taldearen emanaldia Adolfo Jainaga eta Unai Narbaizaren laguntzarekin.
- ✓ Jazinto Olabe ludotekan **Ginkana** 18:00etan. 8-11 urte bitartekoentzat. Doan.

### Martxoak 24, zapatua

- ✓ **Zapatuko ipuina** Ana Rodriguez-ekin. 18:00etan umeen liburutegian. 4 urtetik gorako umeentzat.



### Apirilak 20, barixakua

- ✓ **ISASKARA** musikala. Mogel Isasi DBH-ko ikasleak. Coliseoan, 18:00etan. 5 € (sarrerak salgai).

## Komiki-lehiaketa antolatu du Liburutegiak

“H.C. Andersen-en ipuin bat komikian” izena dauka lehiaketan **LH-ko** edo **DBH-ko** lehen zikloko ikasleek har dezakezue parte. Irakurri eta bereziki gustatuko zaizuen **Andersen-en ipuin bat aukeratu** eta ipuin horren **komikia marraztu** beharko duzue, biñetak eginez. Gutxienez 4 eta gehienez 12 biñeta izan beharko ditu. Komiki formatuan egin beharko duzue: bokadiloak, epigrafe edo goiburuak eta abar. Eta guztira, gehienez, hiru folio hartuko ditu.

Lanak **bakarka** edo **taldean** aukeztuko dira umeen liburutegian. Lanak entregatzeko epea: **martxoaren 19tik apirilaren 16ra arte**.

Eibarko liburutegiko 3 irabazleek Espainian antolatutako lehiaketan ere parte hartuko dute.



Informazio gehiago eta Andersen-en ipuin guztiak liburutegian.



# IHES EGITEN

**B**azen behin mutiko bat Markos izenekoa. Markos bihurri samarra zen. Iaz Ingalaterratik etorri zen Eibarrera bizitzera. Eskolara joan zen lehen egunean Marina izeneko neskatxo bat ezagutu zuen. Marina kirolari oso ona zen. Gehien gustatzen zitzaion kirola futbola zen. Markos lehenengo begiradan Marinaz maitemindu zen. Bigarren egunean Monika eta Natalia ezagutu zituen, Marinaren laguntzarekin. Monika margolari ona zen, bere etxean berak margotutako hamar koadro zituen paretan zintzilik. Natalia geldiezina, bihurria eta zoro samarra zen, eta malgua ere bai. Bestalde, animaliak gustatzen zitzaizkion, batez ere katuak.

Egun batean Markos eta Natalia eskolako korridorean ura xaboiarekin lurrera bota zuten. Gero, andereño bat erori eta hanka apurtu zuen. Zuzendaritzakoak enteratu eta Nataliaren eta Markosen etxeetara deitu zuten. Markosek eta Nataliak ez zuten gurasoak hasarretzea nahi eta... plan bat pentsatu zuten! Ihes egingo zuten urrutira lagunekin. Marinari eta Monikari azaldu zieten plana eta baietz esan zuten. Arratsalde horretan bertan joan ziren. Atzeko atetik atera ziren, autobus bat hartu eta Pirinioetara joan ziren.

Han kobazulo bat aurkitu zuten eta bertan sartu ziren, euria ari zuen-eta. Marinak futboleko baloi bat atera zuen eta jolasean hasi ziren. Tiro batean baloiak kobazulo guztia zeharkatu zuen eta oso urruti joan zen. Markos baloiaren bila joan zen eta han izugarritzko gauza politak zeuden: landareak, aintzirak, eguzkia...



Markosi arraroa iruditu zitzaion han eguzkia egotea eta lagunei deitu zien. Marina beste aldera bueltatu zen eta han euria ari zuen. Baloia uretan zegoen. Monikak ez zekien igeri egiten eta Nataliari heldu zion. Paradisuan zeuden. Ez zegoen leku politagorik. Untxi batzuk ikusi zituzten eta Nataliak animaliak gustoko zituenez hara joan zen. Animaliek hitz egiten zekiten! Monikak eta Marinak pentsatzen zuten etxera bueltatzerakoan gurasoek bronka botako zietela eta beldurturik zeuden. Baloia eta untxiak hartu zituzten. Euren lagunak egin ziren eta gauza asko egin zituzten elkarrekin. Bat batean azeri bat agertu zen eta untxi guztiak jan zituen. Oso triste gelditu ziren umeak. Hurrengo egunean Markosek bere buruari esan zion, Marinari esango ziola bera zuela gustoko. Marina altxatu eta Markorengana joan zen eta Markosek esan zion:

- Marina, zutaz maiteminduta nago.- Eta musu erraldoi bat eman zion.

Leku hartan geratu ziren gaua iritsi arte. Gauean han afaldu zuten. Denak beldurrez zeuden etxera itzultzeaz baina azkenean etxera bueltatzea erabaki zuten. Etxerako bidean Marinak Markosi esan zion:


- Nire nobioa izan nahi duzu?

Eta Markosek erantzun zion:

- Bai bai, bai baiiiiiiii!

Etxean gurasoak oso kezkatuta zeudenez ez zieten bronkarik bota. Bere abentura guztiak azaldu zituzten. Marina, Markos, Monika eta Natalia andereñoarekin edo gurasoekin haserretzen zirenean kobazulora joaten ziren.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



**zu margolari**